

noaua



Txema Pikabea idazlea:
“Beti izan dut irudimen handia”

Troia eta Txikierdi
arteko errepidean
errei bat itxita
egongo da hiru hilabetez



Aginaga jai giroan
murgilduko da asteburu honetan

Zerbitzuak hobetzeko eta gizarte-politika hobeak izateko **ticketa. BAI.**



TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen tresna aurreratua eta solidarioa, etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.

gipuzkoa.eus/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Kronika

ERREMONTA JAIALDIA

URRIAK 7 - 17:00

GALARRETA JAI-ALAI

| SORTZAILEEN POSTUAK

| ZUZENKO MUSIKA

| ERREMONTA TXAPELKETA:

100 PARTIDUA (20 TANTO)

HERNANI VS ASTIGARRAGA
LOITUEI - BARRIETREA IV GOMIETREA - LANBARAGA

2. PARTIDUA (20 TANTO)

GOIZUETA-ARANO VS EREÑOTZU
URRIZA - APEZTEA ANSA II - MARTINEA

3. PARTIDUA FINALA (20 TANTO)

SALMENTA-GUNEAK:

- KRONIKA
- GALARRETA (GUNEAN BERTAN ESKURAGARRI)
- KATZA TABERNA (ASTIGARRAGA)
- AMAIA KAFETEGIA (GOIZUETA)

| 22 SAGARDEGITAKO SAGARDOA:

AKARREGI - ALBERIO - ALTZUETA - ANTOLA - ELORRABI
ELUTXETA - EULA - GAHTZIATEGI - GOMI-LASTOLA
GURUTZETA - IPARRACHIRE - ITXASOURU
LAGRE-GAIN - LIZAGA - OIALUME ZAR - OLAIZOLA
OTSUA-ENEA - OYARRIOE - PETRITCHI - RUFINO
ZAPIAIN - ZELAJA



SARRERA 12€
PINTXOA + EDARIA
*10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN

ORLA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

Kronika



Albisteak iruditan

Energia berriztagarrien komunitatea sortzeko lehen urratsak

Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko 5. bilerak irekia egin zuten irailaren 21ean Potxoenean. Uda aurretik egin zuten azken bilerak, eta pasa den astean hartu zuten gaia lantzen jarraitzeko konpromisoa. Merkatu elektrikoa izan zuten hizpide haren funtzionamendua, ondoren, komunitatea sortzerakoan kontuan hartu beharreko puntu nagusiak aztertzeko. Hortik abiatuta, helburu nagusiak zehaztu zituzten.



Pasa den asteko bileran, merkatu elektrikoa izan zuten hizpide. Haren funtzionamendua batez ere. Ondoren, komunitatea sortzerakoan kontuan hartu beharreko puntu nagusiak aztertu zituzten.

Laburrean

1952an jaiotakoen bazkaria, urriaren 22an

Lukainategi jatetxean ospatuko dute urriaren 22an, 1952an jaiotakoen topaketa, bazkari eder baten bueltan. Izena emateko epea hilabete horretara arte, urriaren 15era bitarte zabalik izango dute. Apuntatzeko deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Urriaren 25ean, literatura topaketa Sutegin

Ana Merino herrikideak zuzenduriko solasaldia iragarri du Sutegi udal liburutegiak urriaren 25ean. "Los extraños" liburua aztertuko dute. Hitzordura egilea, Jon Bilbao idazlea gonbidatuko dute. Solasaldi honi begira, liburuaren aleak eskuragarri dituzue udal liburutegian.

Urriaren 15a, 1955eko kintoen eguna

1955eko kintoek egunpasa egingo dute urriaren 15ean Oñatin. Bertan, Artzain Eskola (Arantzazun) eta Unibertsitatea bisitatuko dituzte. Ondoren, bazkaria Soraluez jatetxean izango da. Izena emateko 675 006 445 (Maribi) telefono zenbakira deitu urriak 10 baino lehen.

noaqua

Kultur Elkarteak
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ugaitz Agirre

Biharraz inoiz ez daki (1)

Zutaz idatziko dut, bota nizun asfaltoari begirik kendu gabe.

Ez zenuen imintzio txikiarik ere egin hori entzutean. Isiltasuna geroz eta astunagoa bilakatzen zihoan, eta, agian, hari amaiera jartzeko ardura zeneukan. Hasperen ezpainak mugitu aurretik:

Uste duzu nitaz edozer dakizula larrutan egin dugulako?

Zu ere harritu zintuen erantzun hark. Nire umorearekin kutsatzen ariko zinen, segurki.

Orduko hartan, paisaia idorrek inguratzen gintuen. Muino higatuak, borobilduak eta sastraka lehorrek estaliak monotonía aspergarria ziren. Ezker-eskuin batak bestearen kopia zirudien. Begiak itxi eta negu hotz hartako eguzki printzek aurpegia goxatzen zizuten. Nahikoa ez. Autoak berogailua matxuratuta zeukan, eta zuk beroki gorria zeraman soinean. Bufanda koloretsua, artilezko txanoa eta eskularruak ere ez zitzaizkizun falta. Txaketaren kremaileira ezpaineraino igota gidatzen nuen nik.

Zigarreta egin eta pizterakoan, leihoa zabaldu nuen keak alde egin zezan.

Erokeriak egiteko dira, erantzun zenidan ohi bezala.

Ez al zen izan halako zerbait gure lehen lurrartzea?



“Irri egin zenuen, irri txikia, eta ez zinen bakarria izan. Metroko besteren batek ere barre egin zuen nire izuaren kontura”.

UGAITZ AGIRRE

“Beste hainbat pertsona zelatatu banituen ere, han, erakargarriena zu zinen”

Erokeria diot. Bartzelonako aireportu kanpoaldean besarkatu ginen bizitza osoa haren irrikan egon diren biren pare: pelikula sentiberetako eszena. Gerritik gogor heldu, estutasunean goxo, bigun, atsegin. Berokipean haragia bilatzen genuen humanoak ginela ziurtatzeko. Ohitura hori sarritan praktikatu zenuen: ipurdia ukitzeko tentazioa eutsi ezin, eta arrimatu bezala joaten zitzaizun eskua hara. Kasu egiteko eskatzeko, bi kolpetxo: tas, tas.

Ei, Ugaitz, egun on! Zer ari zara orain ere pentsatzen?

Saltotxo bat eta guzti eman nuen ustekabe haren erruz. Irri egin zenuen, irri txikia, eta ez zinen bakarria izan. Metroko

besteren batek ere barre egin zuen nire izuaren kontura. De-tektibea ezkutalekutik aterata bezala sentitu nintzen, biluzik, ahul, zaurgarri. Bidaiariak jabetu ote ziren zertan ari ote nintzen?

Ze, beste istorio bat?

Zu bai, antza zenez. Istorio baterako pertsonaien bila, zehatzago esanda.

Fisikako tratatua irakurtzen ari zen agureak bizitzaren deprimentea eta goibela kontatzeko balio zezakeen. Iraganeko modara jantzita eta errutina grisari lotuta, denbora tarte iheskorak besterik ez zituen, agian, nerabezarotik ate joka zeuzkan pasioez gozatzeko. Horrelako liburua irakurtzeko lekua ez baitzen bagoi estu eta zaratsua. Une oro hurrengo geltokiaren berri ematen duen ahots mekanikoa eta diru eske zebilen gitarra-jole andetarren maitasun abestiak, jende gehien ibiltzen zen bide tartee-

tan.

Zer esan gaztaro betean bizarra zatika ateratzen zitzaion mutil beltzarana-ri buruz? Ez zion begirik kentzen mugikorrari. Hiriko planoa antzeman nion. Birtartean, hankekin kartoizko kaxa inguratzen zuen altxor-rra bailitzan. Egunean zehar esertzeko zituen momentu eskasetakoa izango zen bidaia hura. Segundoen balioa nik neuk baino gehiago apreziatzen zuen.

Gominarekin ilea atzeraka orraztuta zeraman tipoak gaizki begiratu zituen bere ustez maitasun keinu gehiegi egiten ari ziren bi mutil. Ez zitzaidan inolaz ere erakargarria egin ez pertsona, ez pertsonaia bezala.

Beste hainbat pertsona zelatatu banituen ere, han, erakargarriena zu zinen. Nire gorputzera helduta zinen eta ilea garbitzeko erabili zenuen xanpua usaintzen nizun. Laranja usaina. Bagoiaren dardarak medio, gogorrango heldu zinen. Estutasun hartatik askatu nahi ez, eta nagikeriaz hitz egin zenidan, erdi marmarka, erdi lo bezala. Lanera joateko ez zeneukan gogorik, eta are estuago heltzen zinen nire gerrira. Proposamen bat bururatu zitzaidan:

Laura, erokeria bat egin nahi?

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



Garagardo Azoka, Usurbilgo kirol kluben eskutik

Elkarlana eta elkartasuna ardatz nagusi izango dituen ospakizun betean murgilduko gara urriaren 13tik 16ra lau egunez, futbolarien eta eskubaloit taldeen bilgune diren Usurbil F.T. eta Usurbil K.E. antolatzen ari diren Garagardo Azokari esker. Bistan denez, ez da edatekorik faltako, ezta jatekorik ere. Musikaz blaituko dute ekimena, baita beste hainbat ekintzekin ere.

Aipatu moduan, lau egunez luzatuko den Garagardo Azoka Usurbilgo frontoian ospatuko da. Antolakuntzatik aurreratu dutenez, jantokia eta sukaldaria izango ditu, baita ekimen ezberdinei tarte egingo dien oholtza ere. Garagardo eskaintza zabala dastatzeko moduan. Jatekoa bertan erosi eta pilotalekuan jan nahiz etxera eramateko aukera eskainiko dute. Urriaren 13an izango den irekiera ekitaldian afaria eskainiko dute, baita biharamu-



Helburuetako bat da Usurbil FT futbol taldearen eta Usurbil KE eskubaloit taldearen lankidetzat sustatzea. Argazkia: Goiena.

GARAGARDO AZOKA

**Lau egunez luzatuko da
Garagardo Azoka
Usurbilgo frontoian:
urriaren 13tik 16ra**

nean hilaren 14an ere. Urriaren 15ean egun osoz egongo da zabalik eta bazkari zein afari

zerbitzua eskainiko dute, urriaren 16an bazkaria. Herri osoa gonbidatu nahi dute azokara; gazte nahiz heldu.

Laguntzarako deia

Giroten joateko, kontuan hartzeko zenbait ohar. Batetik, herriko bi kirol klubok mila errifa salgai jarriko dituzte asteotan. Klean saltzaileraren bat topatuz gero, errifok erosteko

deia egin dute. Herriko kirolarien materiala zozketatu asmo dute, Garagardo Azokaren baitan. Azokan laguntzeko prest denak bestalde, bi elkarteekin hartuemanetan jartzeko deia egin dute. Laguntza biltzeko lan betean dira asteotan; herrian jardura ekonomikoren bat dutenak ekarpenak egitera animatzen dituzte.

Harremanak estutzeko

Garagardo Azokaren antolakuntzak harremanak estutzen segitzen duten Usurbil K.E.-k eta Usurbil F.T.-k antolatu dute. Jendetsua eta ederra izan zen afari bateratu batekin eman zioten amaiera iragan 2021-22 kirol denboraldiari, go-raino bete zuten frontoian. Ere-mu berean elkartuko dira laster berriz. Horixe dute helburuetako bat; lankidetzat sustatzea eta azokaren bidez, bi kirol elkarteontzat laguntza biltzea. Xehetasun gehiago, datorren aldizkarian.

Aniztasun Kontseilua aurkeztuko dute datorren Mundualdian

Usurbilgo jatorri ezberdinen bilgune izan ohi den Mundualdia azaroaren 5ean ospatuko da. "Ohiko ekitaldiren bat izango da, baina beritasunak ere izango dira tartean". Hitzordua gainera, Aniztasun Kontseilua ezagutarazteko ba-

liatu nahi dute. Hala erabaki zuten berriki eginiko bileran. Bilgunea "herriko zenbait norbanakok eta eragilek osatu dute, Udalaren bultzadarekin eta partehartzearekin eta euren jardunaren berri emango dute Mundualdiaren bidez".

Aniztasun Kontseilutik bideratzen ari dira beraz, azaroaren 5eko Mundualdiaren prestaketa lanak baina Kontseiluaren egitekoa ordea ekimen honetatik haratago joango da. "Usurbil harrera herri izan dadin eman beharreko pau-

soak finkatu eta elkarbizitza bultzatzeko ekintzak egingo dituzte". Bide horretan, aipatu kontseilutik aurreratu dutenez, "harrera protokolo bat osatuko dute Eusko Jaurlaritzaren Biltzen zerbitzuaren laguntzarekin".

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Txema Pikabea idazlea: “Gustuko dut idaztea, beti izan dut irudimen handia”

S ortzez aginagarra den idazleak orain arte kale-ratu dituen bere argitalpenen inguruko aurkezpena egingo du ostiral honetan, San Praixkuen hasieran; 20:00etan Eliza Zaharrean. Urduri baina pozik dago orain arteko ibilbidea ezagutarazteko jaioterrian izango duen aukeragatik.

NOAUA! Liburua ote zen baina ez. Egilea da Aginagarekin lotura duena.

Txema Pikabea Bereziartua: Nire sustraiak Aginagan daude, gurasoak bertakoak dira. Baina aldi berean Lasartekoa ere bainaiz, jaio eta hiru hilabetera bertara joan ginen bizitzera. Halere, astebururo Urruzmendira joaten ginen, han egoten ginen familia osoa. Horregatik liburuetan jartzea gustuko dut Aginaga-Lasarte, bien parte sentitzen naiz.

Aginagaren izena zure eleberrierekin lau haizeetara zabaldu duzu honez gero.

Liburua da zuk nahi duzun hori gertatzea edo ezagutzea jartzeko aukera ematen dizuna. “Gritos”-en pertsonaia batek Oier Aginaga izena du. Hor nahi nuen garrantzia hori eman nahi nion nire sorterrari.



Txema Pikabeak liburu berria aurkeztuko du ostiral honetan, 20:00etan, Aginagako Eliza Zaharrean.

LIBURU AURKEZPENA

“Beste hiru aurkezpen egin ditut; bi Donostian, beste bat Errearterian. Argi dago Aginagakoa izango dela politena. Ilusioz bete nago. Aurkezlea gainera, lehengusu bat izango da”

Nola oroitzen duzu haurtzaroko Aginaga?

Erabat aldatu da. Baserria ere bai. Orain dena berritua dute. Etxebizitza da orain. Orduko garaia oroitzen ditut, nola elkartzen ginen asteburuetan familia osoa, eta piloa ginen.

Familiako goxotasun hori dut gogoan, ze harreman polita zegoen denen artean.

Jatorriaz ari garela, nondik datorkizu idazteko trebetasuna?

Beti gustuko izan dut idaztea, beti izan dut irudimen handia. Egunkari bat idazten dut 1988tik. Istorioak sortu ditut beti buruan baina idatzi berez ez. Behin istorio bat bururatu eta idazten hasi nintzen; hortik sortu zen “Gritos”. Idazten hasi eta erraztasuna nuela jabetu nintzen. Idazten hasi eta pertsonaia eta istorio gehiago etortzen dira. 40 urterekin hasi nintzen, berandu, pena ematen dit. Beti diot idazle arraroa naizela, hasteko edota idazte-

ko moduagatik. Jendea egia esan harritua geratzen da, idazle izateko ez dudalako ezer ikasi.

“Gritos” 2015ean, “Lia” iaz. Loturak egon badaude bi liburuon artean; eroso sentiarazten zaituen literatura generoa.

Idatziko ditudan liburuak halakoak izango direla argi dut; eleberri beltza, thriller-a, psikologia oso gustuko dut. Pertsonen alderdi ilunean sakontzea oso gustuko dut. Gehiegi gustatu ez eta ezkututzen dugun alderdi ilun hori denok dugula uste dut eta hor murgiltzea nahi izaten dut. Irakurle batzuentzat erakargarria da, beste batzuk diote pertsonaia horiek ez direla existitzen. Baina noski egon badaudela. Liburu bidez mezu psikologiko asko bidaltzen ditut, alor horretako ikasketak egindakoa bainaiz. Istorio nagusi bat dago; gero istoriotxo batzuk, amaieran denak elkartzen dira. Lotzen zoaz. Beti diodan moduan, liburuetan idatzitako guztia zerbaitegatik da, bere funtsa du. Nire istorioek bira edo ezusteko asko dituzte. Nahiz eta potolo samarrak izan, oso dinamikoak dira eta azkar irakurtzen dira.

“Jendearen oniritzia jasotzea, horrek ez du parekorik”

NOAUA! Idazteak zer eragin du zuegan?

Txema Pikabea Bereziartua: Esperimentatzeko modu bat da, askatasun handia ematen dit. Nire barruko fantasiak atara eta gustatuko litzaidakeen mundua irudikatu ahal dut. Eta gainera, egin duzun zerbaitean aurrean, jendearen oniritzia jasotzea, horrek ez du parekorik. Nire kasuan gainera, dezente ikusi ditut emozionatuak. Halako eran-

tzuna jasotzea izugarria da. Eta gainera sari bat ematen badizute, orduan bai pentsatzen duzu, zerbait ondo egiten ari zarela.

Zure “Lia” bigarren lanagatik saritua izan zinen iaz, ezta?

Ikuspegia erabat aldatzen da, saria irabaztea izugarria izan zen. Aurreneko liburua idatzi nuen lagun batek argitaratu behar ote nuen galdetu zidan. Berak animatuta argitaratu nuen. Idatzi eta irakurri nahi zuenari

fotokopia batzuk ematea zen asmoa. Sariaren ostean, Gipuzkoan hedabide askotan atera naiz, une batean uztea erabaki nuen. Denboratxo bat pasa da, maiatzetik ezer egin gabe.

Nola bizi izan zenuen sariketa?

Sari banaketa iazko irailaren 10ean izan zen, hilabete lehenago deitu zidaten. Oporretan nintzela, finalista nintzela jakinarazteko deitu zidaten. Txantxa ote zen galdetu nien,

ezet esan zidaten. Pixkaka barneratzen zoaz, baina gero sariketara joan eta han esan zutenean irabazlea “Lia” zela, une batean mahaian geratu nintzen ez dakit nora begira, egia ote zen jakin nahian. Oholtza gainera igo, ez dakizu zer esaten duzun ere... Egia esan bizipen itzela izan zen, gozagarria. Aitortza hau jasotzea izugarria da, ezin da deskribatu. Ez dut inoiz barneratuko.

“Letrame saria irabazi nuenetik, ia egunero idazten dut zerbait”

NOAUA! Sariketa bultzada handia izango zen zure idazteko zaletasunari begira?

Txema Pikabea Bereziartua: Orain hirugarrengorekin nabil, besteekin baino azkarrago noa baina ez saria irabazi dudalako. Sariketaren berri izaterako idazten hasia nintzen, motibatua, gogotsu nengoen. Saria irabazteak noski gehiago motibatzen zaitu. Orain ia egunero idazten dut zerbait.

Oso aurreratua duzu ezta?

Bai baina aurreko bi liburuekin oso argi nuen istorioaren ildo. Hirugarrengo honekin balantzaka nabil. Ideia batekin hasi nintzen, gero aldatu nuen, orain beste zerbait bururatu zait... Orain arteko guztia biratu eta aldatu behar dut. 340 orrialde idatzi ditut ordenagailuan, aurreko liburuak baino potoloagoa izango da hau. Hau guztia pixka bat ordenatu eta finkatu arte... Dena irakurri behar dut, ondo jarri. Bukara sortzeke dut. Hirugarrena noizko galdetzen didate, liburu



Txema Pikabearen 'Lia' nobela Letrame sariketan saritu zuten iaz, eleberri beltzaren kategorian.

TXEMA PIKABEA

“Idazten amaitzean, bizpahiru aldiz irakurtzen dut baina gero gustuko dut pertsona batzuei uztea, beraiek irakur dezaten”

horrekin gustura nagoenean kaleratuko dut.

Berriz irakurri beharra, lan neketsuena ezta?

Bai baina egin beharreko lana da. Oso erraza da ibilbide horretan akatsen bat egotea; atal batean abokatuari izen bat jarri eta hortik 100 orrialde geroago beste izen bat jartzea adibidez. Idazten amaitzean bizpahiru aldiz irakurtzen dut, baina gero gustuko dut pertsona batzuei uztea beraiek irakur dezaten, guztia koherentzia barruan dagoen ikusi eta ondo ulertzen den, akatsik ez dagoela ziurtatzeko. Azkenean, une

bat iristen da zuk perspektiba galtzen duzuna. Irakurtzen duzun bakoitzean esaldi edo parrafo bat aldatzen duzu. Beharrezkoa da norbaiti uztea eta pertsona horrek liburua zerotik irakurtzen hastea. Beste ikuspegi bat izan dezake. Idatzitakoa beste norbaiti uztea gustuko dut, ikuspegi garbia baitu.

Idazlanetatik bizi nahiko zenuke edo hezkuntza munduko zure lanarekin uztartzen segi?

Haurrak hezten urte asko dira. Duela 10-11 urte aurkitu nuen nire gustuko lana eta egia esan gustatuko litzaidake honekin jarraitzea. Baina oso zaila da idazle moduan bizitzea. Hala ere, behintzat zaletasuna baino gehiago den honekin jarraitzea nahi nuke. Jendeak asko zirikutzen nau edo nire atzetik dabil, noizko hurrengo liburua? Niri motibatu egiten nau horrek. Gustatu bai baina zaila ere, berdin jarraituko beharko dugu.

“Epilepsiaz askorik ez dakigu, baina edonork izan dezake. Nik adibidez, lehen krisia 22 urterekin izan nuen”

NOAUA! Komiki bat ere landua duzu; “Aura” izenekoa.

Txema Pikabea Bereziartua: Epilepsia dut. Elkartean nengoenean, idaztera animatu nintzen, gaiari buruzko informazio gutxi baitago. Bi neuronen arteko elkarrizketa bat zen, batek epilepsia du besteak ez, zer den azaltzen hasten zaio. Nahiko polita geratu zen, batzordera eraman nuen. Neurologo batengana eraman

genuen zuzentzera.

Egun eskoletan, anbulatorioetan eta elkartean ekitaldietan banatzen dute. Komikian komentatzen da krisialdi batean zer egin behar den eta batez ere zer ez den egin behar, ideia oker asko baitago. Epilepsiaz askorik ez dakigu, baina edonork izan dezake. Nik adibidez, lehen krisia 22 urterekin izan nuen.

Zer da zehazki?

Bi neuronen arteko talka bat eta horrek deskarga elektriko bat sortzen du. Konortea gal dezakezu edo krisialdi batean munduarekiko deskonektatu, gauza arraroak egin eta gero ezertaz gogoratu ez. Nik kontrolatua dut, baina beste askok ez. Ikerketa falta da. Buruan ebakuntza egin liteke baina paralisiren bat izateko arriskua egoten da. Psikologikoki zaila

da kudeatzea, kontrolatzen ez badizute. Dena baldintzatzen baitu; ezin duzu edan, gidatu, zenbait lanetan ere ezin duzu jardun edota ezin zara bakarrik ibili kalean. Epilepsia motaren arabera, eza gutzen ditut batzuk lur jota daudenak. Elkartean denetarik ikusten da. Ulgarria da, zure bizitza erabat aldatzen du. Dependientean bilakatzen zara.

“Konponbiderik gabeko” matxura erraustegiko transformadorean

2020ko maiatzean Arkaitzerrekan izandako isurketaren harira ireki zen ikerketa judizialaren baitan, erraustegiaren arduradun nagusiak deklaratzeko hastekoak ziren irailaren 16aren bueltan, aipatu plantan izandako beste ezbehar baten berri eman zuen GuraSOSeK prentsaurreko bidez.

Apirilaren 25ean jazo zen, transformadore nagusian. “Egun berean, transformadorea fabrikatzaileari bidali zitzaion, konpon zezan”, berri eman zuen GuraSOSeK. Gailu honen ekoizle “ABB alemaniarra orain Japoniako Hitachi enpresarekin elkartuta dagoenak, bere aldetik, ez du gomendatzen aparatua konpontzea jasandako kalteen larritasunagatik eta atzeraezintasunagatik, lehen txosten batean agertzen denez”, gaineratu du aipatu elkarteak.

“Hark behin-behineko txosten bat egin du, eta bertan



Erraustegiko “instalazioak behin-behineko ekipo batzuekin funtzionatzen du”.

GURASOS

“Erraustegia hilabete egon zen energiari sortu gabe eta erraustekarako labeak erabili ezinik”

adierazten du istripua 2020ko irailaren 1ekoaren oso antzekoa dela. Ondorioz, ez da gomendatzen hura konpontzea, nukleoan izandako kalteen larritasuna eta atzeraezintasuna kontuan hartuta. Kasu honetan,

beste batzuk dira kaltetutako nukleoko bobinak”, GuraSOSeK berri eman duenez.

Azarora arte

Ezbeharra apirilaren 25ean gertatu eta GuraSOSetik azaldu dutenez, 24 orduko epean jakinaraztera behartuak egon arren lau egun beranduago berri eman zion erraustegia kudeatzen ari den Ekondakinek Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Ingurumen Sailari. Herritarrei ez zaiela jakinarazi salatu

du GuraSOSeK.

Istripuak eragin zuzena izan du ordutik Zubietako erraustegiaren funtzionamenduan. “Erraustegia hilabete egon zen energiari sortu gabe eta erraustekarako labeak erabili ezinik. Maiatzaren 25az geroztik, sei hilabeterako baimendutako behin-behineko instalazio batekin ari da lanean, transformadore nagusi matxuratuaren edukieraren laurden bat duten hainbat transformadore instalatu dituzten edukiontzietan oinarrituta”. Azarora arte, erraustegiaren “berehalako etorkizuna ezezaguna da gaur egun”.

Erraustegiak “instalazioak behin-behineko ekipo batzuekin funtzionatzen du, goi-tentsioko saretik hornitzea eta sortutako elektrizitatearen laurden bat isurtzea ahalbidetzen dutenak; izan ere, behin-behineko ekipo horien potentzia 7MW/hkoa da, eta transformadore matxuratuaren potentzia, berriz, 28 MW/hkoa”.

“Aurrekaririk gabeko porrota da eta gainera, legez kanpokoa”

Transformadore nagusiaren matxurak zuzenean eragin du erraustegiaren funtzionamenduan. “Balorizaturako energia testigantza hutsa da”, “2021eko apirilaren 1etik 2022ko martxoaren 31ra bitartean, GHK-k iragarritako aurreikuspenen (45.000 etxeren beharrak hornitzeko adina argindar) %34,4 eta ahalmenaren %28,5”.

Errausten ari dira honda-

kinak GuraSOSeK esanetan, balorizatu gabe, energia apenas sortu gabe. “Proiektua aurrekaririk gabeko porrota da, eta, gainera, legez kanpokoa”, adierazi du GuraSOSeK. Elkarrearen aburuz, “Zubietako konplexuaren hondamendi funtzional orokorrari, eta horren ingurumenean eta bertan jarduten duten langileen segurtasunean dakarren larritasunari, kualitati-

boki haratago doan beste defizit hori gehitu behar zaio, proiektuaren bideragarritasunari modu erabakigarrian eragin diolako”.

Larritzat jotzen duen testuinguru honetan, “GuraSOSeK gizarteari dei egiten dio kasuaren aurrean duen alerta berriro aktibatzeke. Aldi berean, erakundeek dei egiten die gizartearekin elkarbizitza ekin diezaioten, ingurumen-erronkari, oro har,

eta proiektu horri, bereziki, aurre egiteko, ohiko bideen kor-tsea gaindituz, argi eta garbi ez baitira nahikoak horrelako kasuei aurre egiteko”.

Hirugarren istripua

Hau ez da Zubietako erraustegiko transformadore nagusiak izan duen lehen matxura, gutxienez hirugarrena bai, GuraSOSeK berri eman duenez.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
•eguneko menua •asteburuko menua
•karta •oilasko erreak, hanburgesak..
paellak enkarguz!
619 40 91 98
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Akerra gaztetxea behar bezala omendu dute

Lehen aldiz Akerra Eguna ospatu dute asteburuan Txokoalden. Eguraldi aurreikuspen txarra zela eta, frontoian egin behar izan zituzten ekitaldi guztiak. Mus txapelketa eta Elektrotxorongo elektrotxaranga izan ziren arratsaldeko protagonistak, eta gauean, leporaino bete zen frontoia afarirako, bertsolariak ikusteko eta gaueko kontzertuetarako.



Eguraldi aurreikuspen txarra zela eta, frontoian egin behar izan zituzten ekitaldi guztiak.

Zirkobirak gaztetxoek liluratu zituen

Zirko ibiltariak girotu zuen ostiral arratsaldean herria. Euria tarteko, ibilbidea laburtu beharra izan zen.

Hasiera batean, Artzabaldik abiatu eta Mikel Laboa plazan amaitzea aurreikusia zegoen. Euria tarteko ordea, Askatasuna plaza izan zuen abiapuntua Zirkobirak eta kalejira labur bat egin zuen segidan frontoira, eta handik Mikel Laboa plazaraino. Bide horretan denetariko erakustaldi bikainak eskaini zituzten partaideek eta zirkoko akrobazietan partehartzera gonbidatu zituzten gaztetxoek.



Denetariko erakustaldiak eskaini zituzten partaideek eta zirkoko akrobazietan partehartzera gonbidatu zituzten gaztetxoek.

Aginagako Jai Batzordea: “Indartsu gaude, baina arraroak izan dira azken hilabeteok”

Aginagako jaiak ate joka ditugu. Ostira-lean hasiko dira aurtengo San Praixku jaiak eta Jai Batzordekoek dena prest dute Aginaga musika eta ekitaldiz betetzeko. Antolaketan aritu direnekin izan da NOAUA! aurtengo egitarauaren nondik-norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Pandemia garai bate-tik gatz. Jai Batzorde askotan eragina izan du horrek. Zuen kasuan, nola dago Jai Batzordea?

Aginagako Jai Batzordea: Esango nuke pandemia aurretik izan genuela indartze bat. Kontuan hartu behar da Eliza Zaharrean proiektu bat martxan geneukala eta Jai Batzordean gauden asko horretan ere aritu gara. Jai Batzordean transmisio bat ematen ari gara, eta zaharrenak eta ibilbide luzeena egin duten horiek aldentzen ari dira. Elkartearen izena aldatzen hasi gara juridikoki eta gauzak nola egin eta bestelako informazioa partekatzen ari gara.

Aurten jende berria ere agertu da, gazteagoak edo hona bizitzera etorri direnak. Horren lotuta ez zeuden ho-



Aitor Aranguren eta Alazne Arruti eman dizkigute aurtengo jai egitarauaren inguruko xehetasunak.

AGINAGAKO JAI BATZORDEA

“Jaiei nola heldu, jendea etorriko ote den... Baditugu gure kezkak, baina garai berri baten aurrean gaude eta ondo gaudela esango nuke”

rietako asko erakarri ditugu azken bileretara. Indartsu

gaude, baina arraroak izan dira azken hilabeteok. Jaiei nola heldu, jendea etorriko ote den... Baditugu gure kezkak, baina garai berri baten aurrean gaude eta ondo gaudela esango nuke.

Gazteak badatoz erreleboa hartzeko edo nolako etorkizuna ikusten duzue?

Bai, nabari da. Saiatzen gara

gaztetxo eta haurrek ere jaie-tako egitarauan lekua izaten. Adin nagusikoekin ere berdin saiitzen gara, eta polita da ikustea gustura hartzen dutela.

Errelebo lan hori modu naturalean izatea nahi dugu, haiek ere nolabait beti kide izan direla sentitzen edo. Lotsa askorik ez dute gainera, eta hasi dira batzuk pixkanaka hurbiltzen.

“Jaietan jendea laguntzeko prest izaten da”

NOAUA! Jaiak antolatze-rakoan bakarrik aritu zarete edo auzoko eragileak ere tar-tean izan al dira?

Aginagako Jai Batzordea: Usurbilgo gazte asko prest agertzen da urtero laguntzeko txosnan edo herri bazkaria zerbitzatzen. Guraso taldetxo bat ere beti izaten da laguntzeko prest guk atsedean hartu ahal izateko. Jai Batzordetik kanpo dagoen jendea orokorrean laguntzeko prest izaten

da eta Usurbildik ere laguntza izaten dugu.

Aurtengo jaiak irailaren 30ean hasi eta urriaren 8an amaituko dira. Lehen egunerako San Praixkuetako argazki erakus-keta aurreikusituz duzue. Noren argazkiak dira?

Azken urte hauetan garrantzia eman diogu jaietako irudiak izateari eta argazkilari askorekin izan gara harremanetan hori lortzeko. Ez soilik irudi po-

litak izateagatik, baizik eta urte hauetan egin diren ekitaldiak eta jaiek eman dutena gordeta uzteagatik. Emaizak oso onak izan dira eta gerora ere erabilgarriak.

Beraz, erakusketa bat jarriko dugu lan horiek erakusteko. Herriko eta inguruko argazkilari askoren lanaren emaitza da, ez soilik argazkilari batena.

Umeen Egunean haur bazkaria

izango da frontoi txikian.

Guraso talde batek antolatzen du ekitaldi hori. Eliza Zaharrean egin izan da azken urteetan edo kanpoan karpan, eta behin edo behin elkartean ere egin izan da.

Goizean jolasak izaten dira eta horri jarraipena emateko modu bat da bazkariarena. Eskolako ume asko hurbiltzen da eta orokorrean herrian bizi direnak ere etortzen dira.

“Herri afarian frontoia ia beteta egoten da”

NOAUA! Azken egunerako be-launaldi oso batek aski ezaguna izango duen Txan magoa. Haurrentzat edo helduagoentzat izango da?

Aginagako Jai Batzordea: Uste nuen gure umetako magoa baino ez zela, baina oraindik ere magia erakustaldiak egiten ibiltzen da. Magia saio asko izan ditugu Aginagan, nik uste denoi gustatzen zaizkigula eta denok txundituta geratzen gara. Haur zein heldu. Erakustaldiak ez du publiko jakinik, edonorentzat egokia izan daiteke. Aukera ikusi genuen hura ekarri ahal izateko eta Aginagan izango da.

Bazkari eta afarietako izen ematea itxi dago jada, baina asteartean jubilatuen hamaiketako izango da Aginaga Sagardotegian.

Sagardotegiko goiko pisuan elkartzen gara normalean eta



Umeen egunerako bazkaria antolatu dute frontoian.

BERTSO SAIOA

“Aginaga sagardotegiko goiko pisuan elkartzen gara, hamaiketatz baten bueltan”

hamaiketatz baten bueltan bertso-saioa izaten dugu.

Bazkari eta afari eta hamaiketakoak nahiko jendetsuak izan ohi dira, ezta?

Herri afaria nahiko jendetsua

izan ohi da. Frontoia ia beteta egoten da. Gazte Egunekeo bazkarian jende gutxiago izaten da normalean, Jai Batzordeko kideok, batez ere, eta gutxi gehiago.

Aginagako jaietan bertakoez gain, usurbildarrak eta inguruko kostaldeko herrietakoak izaten dira. Aurten ere hala izatea espero duzue?

Kostaldeko herrietan jaietako kartelak pegatu ditugu. Zumaia,

Zarautz eta Orion jada jarrita daude. Erronka badugu, urriaren 8an Donostian jaialdi bat izango baita. Guk gualderako jaiak prestatu dugu egun horretarako kontzertu aukera zabalarekin. Orduan, agian egunez Donostian ibiliko da jendea eta gero Aginagara etorriko da. Ez dakigu. Tolosaldeetik jendea etorri ohi da eta Gipuzkoako kostatik jendetza hurbiltzen da. Aurten, uste dugu lehenengo asteburuan ere jendea mugituko dela proposatu ditugun taldeak nahiko ezagunak baitira. Andoni Ollokiegi bigarren asteburuan izango dugu, azken egun horretan, eta hark aitortu zigun Donostiara joan behar duela gauean, baina aurretik “oso bolo garrantzitsua” zuela esan ziela Donostiakoei eta beranduago joango zela. Ondo ezaguna dugu Andoni hemen eta harreman estua dugu berarekin.

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu,
hemen aurkituko dituzu:

* NOAUA! * UDALETXEA

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik
edo QR kodea eskaneatu zure mugikorrarekin!

tren eta autobus



noaua

ordutegia 22/23

Jaietako argazkiekin osaturiko erakusketa

Duela urte batzuk, Aginagako jai batzordea argazkiak biltzen hasi zen. “Azken urte hauetan garrantzia eman diogu jaietako irudiak izateari eta argazkilari askorekin izan gara harremanetan hori lortzeko”, jai batzordeko ordezkariak azaldu digutenez. “Ez soilik irudi politak izateagatik, baizik eta urte hauetan egin diren ekitaldiak eta jaiak eman dutena gordeta uzteagatik”.

Emaitzarekin pozik dira eta orain gainontzeko herritarrekin partekatu nahi dute batutako materiala. Jaiak hasten diren egun berean inauguratuko da erakusketa: ostiral honetan, irailak 30, arratsaldeko 19:00etan. “Herriko eta inguruko argazkilari askoren lanaren emaitza da, ez soilik argazkilari batena”.



Argazki erakusketa ostiral honetan zabalduko dute.

Ondo pasa San Praixkuetan!



KARABANAK
Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA
Salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.norai.nautika.com - info@norai.nautika.com

URDAIRA

Sagardotegia

ONDO PASA SANPRAIXKUTAN!!



Aginaga 943 37 26 91



ondo pasa
jaietan!



Mutiozabal etxea 17, AGINAGA 943 36 10 81 atxega@atxega.com www.atxega.com

Aginagako
eskolako ikasle eta
irakasleek jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



Ondo pasa San Praixkuetan!



676 899 812

Erriberako Kalea 7, Aginaga
20170 GIPUZKOA

Festetan ere...
**OGITARTEKO
APARTAK!!!**



Ostiral honetan piztuko dute jaietako suzeria

Irailak 30, ostirala

- 18:30 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian, pregoi eta brindisarekin.
- 19:00 Txosna irekiera.
- 19:00 San Praixkuetako argazki erakusketa.
- 20:00 Txema Pikabearen liburu aurkezpena Eliza Zaharrean.
- 21:00 Albertoren bakarrizketa Eliza Zaharrean.

Urriak 1, larunbata:

Oilasko Biltzaileen Eguna

- 05:30 Oilasko biltzaileen gosaria.
- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera Atarialde elkartetik.
- 11:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.
- 17:30 Karaokea Eliza Zaharrean.

- 18:30 Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilarien saioa Eskola Txikiaren aurrean.
- Ondoren, herri poteoa.
- 21:00 Herri afari bikaina.
- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Erromeria frontoian: Laiotz taldea.
- 02:30 Euskal Rumba Eliza Zaharrean: Kilimak eta Dj Jotatxo.

Urriak 2, igandea

- 16:00 XXXIX. Mus Txapelketa. Izen-ematea 15:30-16:00 artean Eliza Zaharrean.
- 17:30 Haurrentzako tailerra: Zizka Mizka.
- 19:00 Haragi egosi, txorizo banaketa eta sagardo dastaketa.

Urriak 4, asteartea:

San Praixku Eguna

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Jubilatuen hamaiketako Aginaga sagardotegian, bertsolariek alaituta.
- 18:00 Herri kirolak frontoian, herritarren arteko erronka!
- 19:30 Sardina eta sagardo banaketa trikitilariz alaitua.
- Bitartean, XXXVIII. Toka Txapelketa herrikoia eta buruhandiak.

Urriak 7, ostirala:

Ume eta Gazteen Eguna

- 10:00 Umeen jolasen hasiera.
- 13:00 Umeen bazkaria frontoi txikian.
- 16:00 Puzgarriak.
- 17:30 Txokolate banaketa eta buruhandiak
- 19:00 Patata tortilla txapelketa.
- 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian. Sarrerak Arra-

ten (sare sozial bidez eskutakoak gordeko dira). Urriaren 1era arte izango da izena emateko aukera.

- 23:00 Txosna irekiera.
- 23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Ameba eta Rodeo taldeak.

Urriak 8, larunbata:

Gaupasa Eguna

- 17:00 Txan Magoa.
- 18:00 Txosna irekiera.
- 18:00 Andoni Ollokiegi.
- Ondoren, poteo girotua.
- 00:00 Kontzertuak frontoian: Gozategi eta Fan & Go.
- 03:30 Dj Bull Eliza Zaharrean, goizaldera arte.
- 08:00 Errefus bilketa.
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.











·FATXADAK ETA TEILATUAK

·ERAIKUNTZAK

·BARRUKO BERRIKUNTZAK

·URALITA KENTZEKO ENPRESA

BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



Ondo pasa
San Praixkutan!

AGINAGA • 943 362 773 - 667 694 769



VDA. E HIJOS DE
**JERONIMO
IZAGUIRRE**



Ondo pasa
San Praixkuak!



943 362 146 AGINAGA
www.mariscosizaguirre.com



Angulas Mayoz s.l

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK

Ondo pasa
San Praixkutan!



TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94



Ondo pasa San Praixkutan!

aginaga

Sagardotegia

AGINAGAN HOTELA



**URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA TXOTXETIK!**

Bereztasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfn-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WIFi, bainugela
konpletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarritik (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.
Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobeak.

Tfn-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *




**José María Larburu
Garraiatzailea**

LARBURU

gruarekin ere egiten dugu lan

Garraioak



GARRAIOAK

Larzusta z/g. AGINAGA

☎

943 36 17 35 • 651 703 237

Urriaren 5ean bilera irekia, Etxealdiaren bueltako herri proiektuez hitz egiteko

Eskuartean dituen eta elkar eragiten duten zenbait herri proiekturi buruzko xehetasunak eman eta proposamenak biltzeko herri bilera deitu du Usurbilgo Udalak datorren urriaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan Potxoen. Etxealdiaren bueltako egitasmoak hartuko dituzte ahotan; batetik auzo honetara jaisteko San Esteban kalerako Udalak landua duen egitasmoa, eta, bestetik, tren geltoki berria.

Bi gaiok usurbildar guztiei zuzendurikoak izango dira. Potxoenerako saioa Etxealdirako Hiri Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) jaso dituen proposamenak aurkezteko ere baliatuko du Udalak, baita Etxealdirako Irigarritasun Planaz mintzatzeko ere. Bi gaiok auzotarrei zuzenduak egongo dira.

Gogoan izan, urte hasieran bildu zen udal gobernu taldea Etxealdiako bizilagunekin. Auzoak dituen beharrak identifi-



Igogailu eta pasabideen bidez irigarriagoa izango da tren geltoki berria.

ETXEALDIA

“Udalak arkitekto enpresa bat kontratatu du Etxealdiako irigarritasun plana osatzeko”

katzan aritu ziren, bizilekuak inguratzen dituzten kaleetatik barrena egin zuten ibilaldian. Bilkura hartan, hobetzeko zen-

bait alderdi nabarmendu zituzten Etxealdiako bizilagunek; aparkaleku falta, egunerokoan hainbat uneetan edota irigarritasun arazoak auzora heltzeko, baita bizilekuetara sartzeko ere. Aldapatsua da egun Etxealdiako joan etorrietarako dauden ibilbideak eta eskilarak ere oztopo dira etxeetara sartzeko. “Bilera horretan, udalak

hainbat konpromiso hartu zituen, eta horiek lantzen arituko da. Batetik, Etxealdiak dituen irigarritasun arazo garrantzitsuenei konponbidea emango dien Irigarritasun Plana osatzeko lanketa: udalak arkitekto enpresa bat kontratatu du, eta haiekin egindako proposamena aurkeztuko dute”, iragarri du Usurbilgo Udalak.

Tren geltoki berria, Errekaldereen parekoa

Kaxkoa Etxealdiarekin lotzen duen San Esteban kaleari dagokionean bestalde, “irigarriago egin eta oinezkoen lehentasuna emateko exekuzio proiektua idatzita dago jada, eta udalak urtea amaitu aurretik esleitu nahi ditu lanak”, iragarri dute.

Auzotarrei eskainiko zaien bileraren bigarren zatian, gainera, epe motzean hasierako onarpena emateko den HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean Etxealdirako jasotako proposamenak aurkeztuko zaizkie”, gaineratu dute udal gobernu taldeak.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
Patriotas
Jatetxea

- bazkariak EGUNERO
- afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

© 943 362725
© 688 690 361

Booktegi-ren bosgarren urtemuga jaialdia

Sutegin egingo da urriaren 22an

Euskarazko literatura sarean guztion eskura jartzen ari den Euskal Herri mailako Booktegi egitasmoak bost urte bete ditu. Iaz kultur elkarteak sortu zuten proiektu honen bueltan, non eta Usurbilen. Eta bosgarren urtemuga jaialdia ere Sutegira ekartzea erabaki dute, urriaren 22an. Sustatzaile lanetan ari eta duela urtebetetik herrikide ere badugun Ingalaterran jaio eta euskara eta euskal kulturarekin liluratua dagoen Aritz Brantonek dakartza xehetasunak lerrootan.

NOAUA! Booktegi zertan ezberdintzen da ohiko liburutegietatik?

Aritz Branton: Book hitza aukeratu genuen liburu elektronikoa adierazteko. E-booka esaten delako. Booktegi ez dakigu liburutegia edo argitaletxea den edo bi gauzak aldi berean. Bideoak eta audioak ere ekoizten ditugu. Eta gainera liburuak hartzen dituztenean erabiltzaileek ez dago itzultzerik, deskargatzen dituzte. Guztionak dira. Hortik izena. Ez da ohiko liburutegi bat.



“Gure helburuari heldu diogu bost urteotan; euskaraz irakurtzeko eta idazteko zaletasuna sustatzeari alegia”.

URRIAREN 22AN

Sortzaileak, guztira 30-40 idazle, musikari, antzezle, artista plastiko... batuko dira Usurbilen

Zein zuen abiapuntua Booktegik?

Euskal Herrian liburu elektronikoa oso gutxi erabiltzen zela eta liburu on asko apaletan

geratzen zirela ikustea. Lehenengo edizioa argitaratzen da, jendeak liburuaz gozatzen du baina gero ahaztua geratzen da eta agortua, ez da berriz inprimatuko kostuengatik. Horregatik liburu horiei bigarren ibilbidea eskaini nahi genien eta liburu berriak, kostuengatik, laburrak izateagatik edo argitaletxeentzat ez direlako erakargarriak baina idazle

zein irakurleentzat bai, beste inork inprimatuko ez dituenak ekarri nahi genituen. Abiapuntua hutsune horiek uztartu eta aukera berri bihurtzea izan da eta uste dut bide horretan asmatu genuela, hasieratik hori izan da gure erdigunea. Gure helburuari ere heldu diogu bost urteotan; euskaraz irakurtzeko eta idazteko zaletasuna sustatzeari alegia.

“Hasieran ez genekien Booktegik zer nolako harrera izango zuen”

NOAUA! Bost urteren ostean sortzaile eta zaletuen artean saretzea eman dela esan liteke?

Aritz Branton: Bost urte hauek osatu da bai. Egile batzuk itzultzen dira lan berri batzuekin edo elkarren hitzaurreak idazten dituzte. Datorren jaialdian ikusiko dugu Booktegiarekin harremana izan duten sortzaile hainbat. Adibidez, Uxue Alberdik gure lehenengo jaialdian parte hartu zuen, duela bost urte Donostian.

Bosgarren urtemugako jaialdian ere parte hartuko du, Booktegiarentzat propio sortzen ari den azken emanaldian. Pozgarria da guretzat.

Booktegiren bosgarren urtemuga jaialdia Usurbilen. Zergatik Usurbilen?

Hasieran ez genekien Booktegik zer nolako harrera izango zuen. Hasieran proiektu pribatua izan zen Booktegi. Eta iaz, Booktegi Kultur Elkarteak sortu genuen,

non eta Usurbilen. Beraz, koherentzia eta nahi dugulako, Usurbil da lekurik egokiena jaialdia izateko. Eta gainera zuekin, Udalarekin, Potxoeneakoekin, liburutegikoekin eta ikastolarekin harrera oso beroa izan da hasieratik, hori ere pozgarria da oso.

Zer dakarkizue Usurbila?

Gauzak batzuk ekarriko ditugu eta bertako gauza batzuk ere egongo dira. Batez ere NOAUA!

K.E.-ren ekarpena izango da poesia arloan eta ikastolarik ere laguntza jasoko dugu batez ere antolaketan, harreraren eta aurkezpenak ere ikasleek egingo dituzte printzipioz. Zer ekarriko dugun? Sortzaileak, guztira 30-40 idazle, musikari, antzezle, artista plastiko... Ekarri nahi duguna egun osoko jaialdia da eta espero dugu oso ederra eta interesgarria izatea publiko guztiarentzat.

“Usurbil oso herri bizia eta alaia da”

NOAUA! Irakurleek ez dute entzungo zure ahotsa eta hizkera. Herrikidea zaitugu.

Aritz Branton: Duela urtebete ingurutik.

Zer moduz sentitzen zara herrian?

Oso herri bizia eta alaia da, oso gustura nago Usurbilen.

Kultur ikuspegitik zer nola herria iruditzen zaizu?

Oso bizia. Zuen elkartetik hasita, eta antolatzen diren ekimenak,... gauza asko egiten dira. Horrek esan nahi du oso herri bizia, aktiboa dela kultur arloan. Eta hori noski pozgarria da.

Ingalaterran jaioa, duela 17 urtetik Euskal Herrian. Euskaldundu nahi zenuela argi izan zenuen hasieratik.

Euskaldun bat ezagutu ondoren etorri nintzen Euskal Herriara. Euskaldun horrek egun horretan azaldu zidan aditz sistema eta liluratua geratu nintzen. Euskara etorkizuna baino modernoagoa dela iruditu zait ordutik, aditz sistema izugarri ona dela gauza asko adierazteko, ñabardura guztiak modu naturalean adierazteko. Orduan jakin nuen une


BOOKTEGI
 Euskal literatura denon eskura

Liburuak Elkarrizketak elkarrizKATEA Saio Berezikiak Audioak Egileak Gomendioak Eguzkilore Bloga

LIBURUAK

SAILAK

- LIBURU GUZTIAK
- ALDIZKARIAK
- BIOGRAFIA
- DRAMA
- ELKARRI IRAKURRIZ
- ENGLISH
- ERREPORTAJEAK
- FIKZIOA
- GAZTE LITERATURA
- IKASTAROKAK
- ITZULPENAK


BISITA
 2022/09/22
 Lanarekin goraino nagoela esan diot orain arte, baina agian...
[IRAKURRI ►](#)


BELDARREKIN
 2022/09/15
 "Idazkera ederra du Oihana Aranaren 'Beldarrekin' ipuinak – literarioa...
[IRAKURRI ►](#)


AZKEN EPEMUGA
 2022/09/08
 Nekatuta zegoen epailea, kopetaraino. Behintzat ostirala zen jada, baina...
[IRAKURRI ►](#)


TERRALA
 2022/09/01
 Indartsu sartu da terrala. Gogoz astindu ditu dunetako landare...
[IRAKURRI ►](#)

“Booktegi ez dakigu liburutegia edo argitaletxea den edo bi gauzak aldi berean”, Aritz Brantonek azaldu digunez.

ARITZ BRANTON

“Gozatzeko eta laguntza edo aldeotasuna adierazteko modua ere bada Booktegi jaialdia”

horretan ikasi behar nuela eta neure egin behar nuela. Eta horregatik etorri nintzen hona, hizkuntzagatik eta gero gauza askoz gehiago ikusi eta ezagu-

tu nituen. Sintaxiarekin liluratua geratua nintzen eta nabil, zoragarria da. Eguneroko gozamina da hori. Gero zuek ezagutzea. Hori ere oso ondo dago, ingurua eta gauza asko, historia, gizartea, hori guztia.

Euskara ikasteak ate ezberdinak irekitzen al ditu?

Zalantzarik gabe. Ezin dut imajinatu, herrialde batean bizi eta hango hizkuntza ez ezagutzea, oso pobrea izango li-

tzateke. Funtsezkoa da, ez dut beste aukerarik ikusten. Oso pobrea eta tristea iruditzen zait ez ikastea.

Booktegiren urtemuga jaialdirako gonbita nori luzatu nahi zenioke?

Kulturaz gozatzen dutenei. Eta euskal kulturari laguntza txiki bat emateko aldi berean. Beraz gozatzeko eta laguntza edo aldeotasun hori adierazteko modua ere bada.

Booktegiren 5. urtemuga jaialdia, ekitaldiz josia

Euskal Herriko diziplina ezberdinetako 40 bat sortzaile erakarriko ditu Booktegi egitasmoaren bosgarren urtemuga jaialdiak urriaren 22an. Usurbilgo herri eragile ezberdinekin lankidetzan ospatuko da hitzordua Sutegin. NOAUA! Kultur Elkartek ere ekimeanean parte hartuko du “poesia-itzulera” izeneko saioan hain zuzen. Norberak hautatutako poesia bat beste lagun batek irakurtzean oinarrituko da ekitaldia. Eta hala kate bat

osatu nahi da. Horretarako boldresak behar ditugu. Hitzordua herri osoarentzat zabalik egongo da, animatzen zaretenok izena eman NOAUA!n edo udal liburutegian.

Urriak 22, larunbata Sutegin:

■ 10:00 Poesia-itzulera: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo udal liburutegia.

■ 11:30 Solasaldia: Maialen Alozi, Oihana Arana Cardenal,

Ibon Larrazabal, Amaia Arakis-tain.

■ 16:00 “Habiak” emanaldia: Anari eta gonbidatuak.

■ 17:00 Solasaldia: Mikel Soto, Maite Darceles, Danele Sarriugarte, Bakartxo Iguaran.

■ 18:00 Emanaldia: “Azken aurreko manifestua”. Iraia Elias, Hatxe.

■ 19:00 Solasaldia: Axel Luza-rraga, Irati Majuelo, Aitziber Etxeberría Garro, Ana Galarraga.

■ 20:00 Emanaldia: “Meza Nagusia”. Uxue Alberdi, Amoran-

te.

■ Oharrak:

-Itxaro Borda izango da jaialdiko anfitrioi. Musikaria, berriaz, Xabi Strubell.

-“Habiak” erakusketa Sutegin-ko erakustaretoan, urriaren 22tik 30era.

Sarrerak: usurbilkultura.eus

Informazio gehiago:

booktegi.eus

Antolatzailea: Booktegi kultur elkarte hainbat herri eragile-ekin lankidetzan.

Troia-Txikierdi artean erre bat itxita egongo da hiru hilabetez

Abenduaren 22ra arte erre bat itxita egongo da Troia-Txikierdi artean egin asmo dituzten lanen-gatik. Semaforo batek kudeatuko du ibilgailuen joan-etorria Gipuzkoako Foru Aldunditik ohartarazi dutenez. Auto gehien ibili daitekeen uneetan, langileek kudeatuko dute trafikoa. “77 metroko luzera eta 4 metroko altuera duen horma sendotzeko, hormigoizko zapata bat erabiliko da, eta 25 zentimetroko lodieran proiektatutako hormigoizko geruza bikoitz bat jarriko da, 2,50 metroko diametroko 25 mm-ko hiru buloi-ilararekin ainguratuta”, azaldu dute Foru Aldunditik.

20 hilabeteko epean, epe luzeko 3 obra egin dituzte Txikierdi eta Troia artean

2020ko abenduak 1:
Mendi magala egonkortzeko lanak

N634 errepidean, Txikierdi eta Troia lotzen dituen eremuan, mendi magala egonkortzeko lanak hasi zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lanok tarteko, erreietako bat (Usurbil aldera etortzekoa) itxita egon zen hiru hilabetez. Semaforo bidez kudeatu zuten ibilgailuen joan etorria.

2022ko otsailak 18:
Errepidea hobetzeko lanak

Otsailaren 18an Troia eta Txikierdi arteko errepide zatia hobetzeko lanak hasi zituzten.



Abenduaren 22ra arte erre bat itxita egongo da N-634 errepidean.

OBRA

“77 metroko luzera eta 4 metroko altuera duen horma sendotzeko, hormigoizko zapata bat erabiliko da, eta 25 zm-ko lodieran proiektatutako hormigoizko geruza bikoitz bat jarriko da”

Erustean, jakinarazi gabe, trafikoa ilara luzeak eraginez. Hasiere batean, martxoaren 4an amaitzea zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurreikuspena. Data berria finkatu zuen gero; martxoaren 18a. Beste astebe- tez luzatuko zutela iragarri zu- ten gutxira, martxoaren 25era arte. N634 errepide ertzeko ba- bes-horma berritu zuten lehen- bizi, euste elementuak egoera arriskutsuan zeudelako. Lan hau amaitu eta segidan Troiako sarrera-irteera inguruko zatia berritu zuten.

2022ko irailak 21:

Errepidea eta trenbidearen arteko horma sendotzeko lanak
N634 errepidea eta EuskoTren sareko trenbidearen artean da- goen horma sendotzeko lanak egingo dituela iragarri zuen au- rreko astean Gipuzkoako Foru Aldundiak. “77 metroko luzera eta 4 metroko altuera duen hor- ma sendotzeko, hormigoizko zapata bat erabiliko da, eta 25 zm-ko lodieran proiektatutako hormigoizko geruza bikoitz bat jarriko da, 2,50 me- troko diametroko 25 mm-ko hiru buloi-ilararekin aingura- tuta”.

Lanok egun bakarrean egin- go zituztela zioen Foru Aldun- diaren oharra. Noski, erra- ta bat zegoen informazioan. Prentsa-ohar berri bat bidali behar izan zuten eta hor zehaz- tu zuten lan berri honen epea: “Bihartik, asteazkena, irailaren 21etik, abenduaren 22ra arte egongo da itxita erreia”.

Udal kontuhartzaila hautatzeko prozedura

Usurbilgo Udalak bigarren mailako kontuhartzaila lanpostua “bitarteko izaeraz eta oposizio-lehiaketa sistemaren bidez” betetzeko prozedura abian du. Proze- dura horren baitan urrats berri bat eman du; deialdi- ra aurkezturiko hautagaien onartu zein baztertuen be- hin-betiko zerrendak onartu ditu Udalak, eta horrekin ba- tera, prozesu honetako lehen bi frogen hitzorduak finkatu ditu. Datorren urriaren 4an izango dira, goizeko 9:30ean hasita Oiarde Kiroldegian.

Eskolaz kanpoko kirol jardueretarako udal dirulaguntzak

Urriaren 28ra arte bideratu ahalgo dira eskabideak udal erregistroan edo telematikoki usurbil.eus atarian.

Informazio gehiago, mar- txoaren 8ko Gipuzkoako Al- dizkari Ofizialean, “2022. urtean norgehiagoka erre- gimenekoak ez diren kirol arloko diru-laguntzak eska- tzeko deialdia” loturan. Di- rulaguntza lerro honez gain, Udaletik gogorarazi dutenez, “Kiroldegiko bonu eta ikasta- roen kuotetan hobariak esku- ratzeko aukera ere eskaintzen du Udalak, urte guztian”.

Elkarretaratzea, Sarek deituta

Ostiral honetan, irailaren 30ean, iluntzeko 20:00etan hasiko da elkarretaratzea, Mikel Laboa plazan.

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ERAMATEKO!!!
-EGUNEKO MENUA
-KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Kaxkoan etxebizitza alokatzen da denboraldi motzetarako. Bi logela, egongela, sukalde-jangela balkoiarekin eta komuna. Altzariz hornitua eta sartzeko prest. Telefonoa/WhatsApp-a: 657770131

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan

egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. 622396941 (Patricia).

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Klase partikularrak emateko prest dauden zerrenda osatzen ari da Udarrégi Ikastola.

Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Lan eskaerak

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta haurrak zaintzen esperientziaduna.

679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltsaritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketak

egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Esperientzia badauket. 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Umeak zaintzeko prest. 695 184179 / aneseoane@gmail.com

BESTELAKOAK

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

600 litroko altzairu herdoilgaitzezko (acero inoxidable) kupela daukagu salgai. Sagardoarekin erabilitakoa: 620024663.

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu di-tuenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

**Zorionak!**

Irailaren 30ean beteko dituzue 50 urte ezkondu zinetela Iñaxiok eta Itziarrek. Zorionak eta muxu handi bat urrezko ezteietan familia guztiaren partez!! Hauek ondo ospatu eta datozenak ere ospatu ditzagun elkarrekin!!

Heriotzak

Laura Esther Martinez de Eulate Garcia
Irailaren 25ean hil zen, 81 urterekin

**Eskubaloi partidak****Oiardo kiroldegian****Urriak 1 larunbata**

■ 16:45 Kadete neskak: Usurbil - Elgoibar.
■ 18:30 Senior mutilak, Euskal kopako finalaurrekoa: Usurbil - Ereintza.
■ Jubenil neskak: Elgoibar - Usurbil.
Partida Elgoibarren jokatu da, ordua eta eguna zehazteke.

Selekzioarekin:

Iker Nazabal eta Peru Iraeta jokalariek euskal selekzioaren deialdian hartuko dute parte.

Aurreko asteko emaitzak:

■ Kadete mutilak: Usurbil KE 30-Muskiz 38.
■ Senior mutilak: Usurbil KE 32-Loyola 25.
■ Jubenil neskak: Usurbil KE 28-Bergara 21.
■ Kadete neskak: Usurbil KE 19-Aloña Mendi 13.
■ Jubenil mutilak: Usurbil KE 46-Leizaran 24.

Pilota partidak**Usurbilgo frontoian****Irailak 29 osteguna**

■ 18:00 Gipuzkoako ohorezko maila, eskuz binaka nagusiak: -Pagazpe (Santxo-Urruzola) -Intxurre

Aurreko asteko emaitzak:

■ Gipuzkoako Txapelketa, kadeteak 2. maila: Pagazpe (Alejo-Errasti) 22 Lagunak (Bergua-Uranga) 5
■ Gipuzkoako Txapelketa, ohorezko maila: Tolosa (Elola-Aizpuru) 22 Pagazpe (Exposito-Urruzola) 13
■ Gipuzkoako Txapelketa, paleta goma: Pagazpe (Errasti-Uribarri) 23 Loiolatarra I 25

Goardiako farmaziak

Osteguna 29 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 01 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 02 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astlehena 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Osteguna 06 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 07 DE MIGUEL

Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 08 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 09 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda iraila/urria

30 ostirala

- **Aginagako jaien hasiera.** 18:30ean. Ikus 14. orrialdea.
- **Sarearen mobilizazioa.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

01 larunbata

- **Aginagako jaiak: Oilasko Biltzaileen Eguna.** Ikus 14. orrialdea.

02 igandea

- **Aginagako jaiak** Ikus 14. orrialdea.

Ekintzaileentzako dirulaguntzak

Irailaren 30era arte aurkeztu daitezke eskabideak, Usurbilgo Udalaren bi deialdiotara:

Hasiz Hazi Beka

■ **Xedea:** Kabiñen urtebeteko egonaldia diruz laguntzea proiektu bat garatzen ari den Beterri-Buruntzako ekintzaileari zuzendua. Gehieneko zenbatekoa, 1.089 euro.

Merkataritza lokal hutsetan jarduera ekonomiko berri bat jartzeko

■ **Xedea:** lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzeko laguntza.

■ **Laguntza:** gehienez 5.500 euro hasie-



Hasiz hazi bekari esker, Kabiñen urtebeteko egonaldia egiteko beka lor daiteke.

rako gastuetarako. Gehienez 300 euro hileroko alokairua lehen urtean ordaintzeko, gehienez 200 euro bigarren urterako.

■ **Informazio gehiago:** martxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Etumeta AEK euskaltegian matrikulatzeko garaia da

Irailaren 28ra arteko epea dago matrikulatzeko. Ohi bezala, euskara ikasteko maila guztiak, mintzamen saioak, jarraipen pertsonalizatua... Eta gehiago eskainiko dute. Matrikulazio ordutegia: astelehenetik ostiralera goizez, 11:00-13:00 artean. Astelehenetik ostegunera, arratsaldez baita, 17:00-19:30 artean.

Informazio gehiago:

607 609 379
usurbil@aek.eus

Endika Abril txapelketan, Zubietaz azken fasean

59. Endika Abril errebote txapelketa lehen fasea borobilduta, bere B multzoko sailkapen buruan da Zubietaz. Etxean, errebote plazan jokatu dituzten bi partidak irabazi dituzte: 13-4 nagusitu ziren Kapitoburua Harriren aurkako neurketan eta 13-7 Endaiaurrekin jokaturako partidari.

Endika Abril errebote txapelketako azken faseko sailkatuak daude beraz. Atzerapenik ez bada, finalaurrekoak asteburuan jokatu dira eta final nagusia, urriaren 9an Zubietan.

Datozenak

Emakumeen ahalduentze eskola martxan da

Bi ikastaro iragarri ditu Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak, Emakumeen Ahalduentze Eskolaren baitan.

Biodantza ikastaroa, Oiardo kiroldegian

Eider Zuriarrainen eskutik, urriaren 4tik abenduaren 20ra. Astearteetan izango dira saioak, 15:30-17:00 artean Oiardo kiroldegian.

"Nork bere burua zaintzen eta maitatzen ikasten" ikastaroa, Potxoenean

Kontxi López Soriaren eskutik bestalde, "Nork bere burua zaintzen eta maitatzen ikasten" erdaraz eskainiko duen ikastaroa urriaren 6tik abenduaren 1era, ostegunetan, 17:00-19:00 artean Potxoenean.

Izen-ematea ostiral honetan amaituko da

Ikastaro batean zein bestean izena emateko epea, irailaren 30era arte, parekidetasuna1@usurbil.eus helbidean edo 943 377 110 telefono zenbakian. Ahalduentze eskolako ikastaroetan usurbildarrek izango dute lehentasuna.

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaia.eus

noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...
Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.



noaua



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarritzko bultzada izan zuen Noaua Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herriatik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herriatik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!
25 € / URTEAN*
* 30 urte betetzean automatikoki bazkideztza aruntza izatera pasako da.

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoa, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitortenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noaua.eus/bazkidetu



Telefonoz
943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefona

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkidetza mota

☐ Arrunta (40 €)

☐ <30 urte (25 €)

Jaiotze data

noaua.eus

BOOKTEGI JAIALDIA

urriak 22

POESIA-ITZULERA 10:00etan GONBIDAPENA

Euskarazko literatura sustatzeko jaialdi honetan, euskal poema bat aukeratu eta beste batek aukeratutakoa irakurriaz osatuko dugun katean parte hartzeko gonbidapena da honakoa.

Eman izena Sutegi Liburutegian edo Noaualko bulegoan eta bidali zure poema ondorengo helbideetara (izena emateko azken eguna urriak 14):



biblioteka@usurbil.eus

elkartea@noaueus

noaueus



Urriak 23, igandea

918 GAU

Filmaren
emanaldia

Ordua: 18:30.

Non: Sutegiko auditorioan
Nori zuzendua: helduei

sarrerak: aldezturik salgai 6€tan
usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noaueus

